

NOR ZEN TTIPI URRUÑARRA

Sara, 1991-XII-20

Piarres Andiazabal

NOR ZEN TTIPI URRUÑARRA

“Dama gazte xarman bat jiten zaut bixtara,
Iduritzen baitzeraut zeruko izarra.”

Nork ez du ezagutzen kantu eder hori? Piarres Lafitte zenak agitaratu zuen “Kantuz” liburuan dago, 57 zenbakiarekin, eta kantuaren ondolik beti irakurtu dugu egilearen izena: Ttipi Urruñarra. Baina nor zen delako Ttipi hori, nehork ezin erran. Izengoiti edo ezizen bat zela, ez da dudarik.

Lafitte behin baino gehiagotan entseiatu zen jakiterat nor zen: ikerketa bat egin-arazi zuen 1941-an, haren paperetan aurkitu dudan gutun batek dioen bezala.

Huna beraz Jean Fourcade jaunari igorri zion letra. Jaun hori, sortzez Baionakoa zen, baina urruñar batekin ezkondurik, Urruñan bizi zen. Ordukotz liburu bat bazuen egina: *Sur la frontière d'Espagne - Petite histoire d'un village du Labourd: Urrugne* (1939 Bayonne), eta beste bat apailatzen ari zen.

Piarres Lafitten gutuna Jean Fourcaderi igorria:

Ustaritz le 27 fev. 1941

Mon cher ami,

Je viens vous demander un service... littéraire. Il s'agirait de retrouver des renseignements sur l'ancien versificateur Ttipi d'Urrugne: je crois fort qu'il s'appelait Elissalde. Il fit un chant, paraît-il, pour la réception de l'empereur. Il est en tout cas, l'auteur du n° 57 de *Kantuz*. Tachez de dénicher ses dates de naissance et de mort, le nom de sa maison et ce qu'on raconte encore de lui.

Y a-t-il d'autres versificateurs d'Urrugne? Je crois fort que Harlouchi, auteur du n° 35, était aussi de votre commune. N'y a-t-il pas une

maison Harluchia? Je crois que l'auteur était en Amérique, quand il composa ses chansons...

Je m'excuse de vous lancer ser de telles pistes par le temps qui court. Mais s'il faut attendre le "bon" temps, je crois qu'il vaut mieux renoncer à tout. Bon courage, donc, mon cher ami!

Je vous prie d'agréer mes meilleurs sentiments régionalistes.

P. Lafitte

Letra horren ondotik, paper berean Fourcadek emaiten du bere erantzuna: parte bat aise irakur ditake; bestea ez: Ttipi Maingocoborda -journalier - + vers 1880 65 ans? Voir?

Fourcadek emaiten dion erantzuna gutun berean:

“dit par Ttipi à l'arrivée de l'abbé Lissarague en 1876 -
Herri huntako erretor berri
Erraiten dautzut egia
Egun guzietz segitzen duzu
Jesu Christoren legia”

Gutun horrekin bazen beste bat, Ithurburu, orduan Urruñako bikario edo laguntzaile zen apezak igorria...

Urrugne, le 29 mars 1941

Cher Monsieur l'abbé

Prié par M. Fourcade de mener l'enquête dont vous l'aviez chargé, je viens enfin vous répondre. Je vous prierai d'abord d'excuser mon retard provoqué uniquement par mes diverses occupations.

Je vous renvoie votre lettre avec les petites indications que Mr Fourcade y a apposées. En réalité il y a eu à Urrugne deux "Ttipi": le père, un as bertsulari et son fils, moins bon. Du père on connaît peu de choses, étant donné que personne maintenant n'a pu le connaître Le fils (et la fille) que l'on appelait "okherra" l'étaient au propre et au figuré. Borgnes et ce que l'on appelle ici "yende trastiak": ils sont connus surtout par leurs drôleries; Les vers que vous connaissez de Ttipi sont du père. Je suis allé consulter une vieille de 84 ans pour recueillir les chants sur Napoléon III La mémoire lui faisant un peu défaut à cause de son grand âge et de sa maladie, je n'ai pu inscrire que de bribes de ces bertsu:

Sur Napoléon (1852)

Mila zortzi ehun eta berrogoi-ta hamabi
 Ezarrinahi zinduzket zombait bertsu berri
 Ohore emaiteko Napoleoni
 Zorionean dela gu ganat ethorri
 Tranquil nahi guinduzkela guziak ezarri

Orai aguertzen zauku guri iguzkia
 Arguitzen duelarik Frantzia guzia

Napoleon Frantzian hirugarren zare
 Osaba eta iloba Emperadore
 Gu heien zerbitzatzen ibiliak gare
 Zerbitzatuko zaitugu adinean zahartuak izanik ere

Napoleon har zazu kuraye
 gure zergitatzerat beldurrik gabe

Napoleonek hola manatzen du
 Izan obediente, hola galdatzen du
 Bertzela nahikotu zorrak zuzendu
 Hemen zuhurra denak, sinhesten ahal du.

Otrichia yin zauku orai errespetuan
 Bere beldurrarekin chapela eskuan
 Napoleon zaharra hil zuten orduan
 Ez baitzuten phensatzen bertze Napoleonik bazela munduan

Otrichia bezala Anglesa ere
 Segurra naiz ez dela beldurrik gabe
 Leheneko aferez orhoitzen dire
 Napoleon zaharra han galdurik ere
 Iloba hemen dugu, harendako orde
 Zoina egin baitute emperadore

Napoleon zaharra huntan zen trompatu
 Angleterran zuen egoitza hautatu
 Kriminel bat bezela zuten tratatu
 Ilobak nahiko tu zorrak pagatu

Egin izan zitzaioten hoimbertzte obra
 Onikan baterez, gaichtotikan sobra
 Errencompetsekin iloba hor da
 Othoi ez berantetsi! Yinen da dembora
 Zuek izana gatik burua gogorra
 Arrazoina nork duen agueriko da

Horra hamabi bertsu
 Urruñatik atheratzen direnak Ttipi baitharikan
 Nihor gustatzen bada pheza huntarikan
 Zerbitzaturen ditut nik duanikan
 Ez da bertze phezarik nere botikan!

Ttipi

Sur Arluxi (de la maison Arluchia) on ne sait rien, ou si peu que rien. Il partit en Amérique très jeune et ... c'est tout ce qu'on en sait.

Excusez, cher Monsieur l'abbé, ma documentation réellement défectueuse... j'ai fait de mon mieux. Il paraît que Ttipi a fait des vers fameux sur le jugement dernier que l'on est prêt à me communiquer sur un simple désir.

Votre dévoué P. Ithurburu, vicaire

Beraz ikerketa horrek argi guti eman zion, eta Lafitte bere hartan egonen da: Elissalde zukeela izena gure Ttipik. Eta izen horrekin ekarria da bai Xanti Onaindiaren liburuan (*Milla euskal olerki eder*), bai berriki atera den Patri Urkizuren liburuan. Artetik erran behar da ez dakigula nondik atera duen Onaindiak apaiza zela gure Ttipi.

Horiek hola, Lafitte zenaren paperak miatzen ari nintzelarik, kausitu nituen Maurice Harriet apezak Larresoroko Semenariolari utzi zizkion esku-iskribuak, eta horien artean gutun bat, honi igorria: Monsieur Harriet, directeur du Grand Séminaire, Bayonne. Eta gutun horretan, bertsuak; eta bertsuen ondotik egilearen izena, honela emana:

“Urruñan eguina abustuaren 13an 1853. Martin Halsouet dit Ttipi”.

Bertsuen gaia: Montebideorat joaitea.

Hain xuxen urte hartan izan zen Urruñako bestetako lehen bertsu lehiaketa, Antoine d'Abbadie d'Arrastek eta Urruñako auzapezak eratua, orduko afixa batek dioen bezala:

“Nota: Pilota partida baino lehen, iñanen da goraki eçagut aracia pherxuetaco guduan garaia eraman duena, eta harc eguin pherxuak iñanen dire cantatuac herrico guiçon gazte hortaraco berechi eta irakhaxiez, çoinekin aldizcatuko baita musicari gor-phutz bat: eta ondoan, pherxuetan garaitu duenari emanen çaiçco, Antonio d'ABBADIE yaunaren partezco untçaco urrea eta ohorezco makila”.

Eguina Urruñaco herrico etchean Agorrillaren 29an 1853an.
 Baldarapheça, A. de LARRALDE - DIUSTEGUY”.

Badakigu Harriet apezak biltzen zituela lehiaketa horretarako beretsuak. Ikus Jean Haritschelarren liburuan, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* 448-453 orriak.

* * *

Baina nor da Martin Halsouet hori? Urruñako herriko etxeko liburu zaharretan hatxeman dut 1855-ean hila dela Ttipi baitan.

“L’an mil huit cent cinquante cinq, le vingt sept du mois de Août, à quatre heures de relevée, par devant nous adjoint du maire de la commune d’Urrugne, Canton de ST Jean de Luz, Département des Basses-Pyrénées, sont comparus Pierre Lohiet, âgé de cinquante deux ans, cultivateur, et Jean Montory, âgé de trente deux ans, laboureur, les deux domiciliés au dit Urrugne et voisins du défunt, lesquels nous ont déclaré que ce jour à sept heures du matin, Martin Halsouet, âgé de soixante deux ans, laboureur, veuf de Catherine Churio, domicilié en la maison de Ttipibaita en cette commune, y est décédé ainsi que nous nous en sommes assuré et les déclarants ont signé avec nous le présent acte après que lecture leur en a été faite”.

L’Adjoint du Maire J. Dorbe

Eta huna sortzeko ageria:

“aujourd’huy le vingt germinal l’an troisième de la république française une et indivisible par devant moi Jean Larramendy officier public élu pour rédiger les actes destinés à constater les naissances, mariages et les décès des citoyens sont comparus en la maison commune d’Urrugne Etienne Halsouet métayer d’Anxobaita martin halsouet cadet de tipibaita assistés de gracieuse Etcheverry demeurant à Siboure tous trois de la municipalité d’urrugne département des basses pyrennées lesquels m’ont déclaré que la nommée Jeanne Etcheverry métayère d’anxobaita épouse en légitime mariage du susdit étienne halsouet est accouchée avant hier en son domicile à anxobaita d’un enfant mâle qu’ils m’ont présenté et auquel on lui a donné le nom de martin et le prénom halsouet, d’après cette déclaration que les susdits Etienne et martin halsouet assistés de la susdite gracieuse Etcheverry ont certifié conforme à la vérité et à la présentation de l’enfant dénommé J’ai rédigé en vertu des pouvoirs qui me sont délégués le présent acte que les susdits Etienne et martin Halsouet n’ont pas signé, non plus que ditte gracieuse Etcheverry pour ne savoir écrire”.

Fait à la maison commune d’urrugne les dits jour mois an que dessus.

Larramendy officier public

Horra beraz nor genuen gure Ttipi: Martin Halsouet, Ttipibaitako nagusia edo bordaria (maixterra). Ttipi baita Mendiondo edo Mendixoko deitzen den Urruñako auzo batetako baserri ttiki bat zen. Euskal Herrian ohi den bezala, bere etxearen izenetik deitzen zuten koblaria. Etzen apeza beraz, X. Onaindiaren liburuan errana den bezala. Seme bat (Alexandre) eta bi alaba (Jeanne eta Marie-Dominique) bazituen. Alaba hauek batek bastart bat eta besteak hiru ukan zituzten: horren gatik erran zukeen Iturbururen letran aipatua den amonak jende “okherrak eta trastiak” zirela.

1855eko abuztuaren 27an hil zen gure Ttipi, eta 31an haren alaba Marie-Dominique bere zazpi hilabeteko alabarekin: kolera heldea edo izurritea zen orduan Urruñan.

Badakigu eritasun horrek hiltzen zituenak Sokorriko kapera edo ermita inguruan ehortziak izan zirela: han ditake beraz oraino haren gorpua.

Alexandre semearenak dira beraz 1876an Lissarague erretor berriari eman ziren bertsuak. Hau ezkongabea zen, eta “Bunbullunbaitan” hila da 1893an.

Bertsolaritzaren Historiako 2gn tomoan, hiru “pheza” dira Ttipiren izenarekin: Dama gazte xarmant bat, Mila zortzi ehun ta berrogoi hama-bi, eta Diputatu berriak. Hauek biak iritzi desberdinekoak politika arloan, Napoleon hirugarrenaren eta A. Xahoren goresmenetan! Galdatuaren arabera ari zitaken!

Ikus dezagun orain 1853 urtean izan zen “Concours de Poésie” delakoan agertzeko egin zuen kantua:

Aire honetan: Iguzki denian çoin den eder itçala

* * *

Montebideoren aipu handiac
Niri eman dauzkit aleguerantciac
Deliberaturic harat juaitia
Cer çorokeria!
Esperantçarekin han aberaxtia
Ethorri çait idia.

* * *

Juan behar naiçela erran diot amari
Harc ez ninduen nihondic utci nahi
Nolaspeit gan nahi bortcha egunic hari
orobat aitari
Guero urrikiac baitçaiçkit etorri
Eguinican lan hori.

* * *

Aita amac dire yarri tristecian
 Hitceman nuela aditu çutenian
 Ni heyen aldian nigarra beguian
 Illun bihotcian
 Ez yakin nola eguin heien kitatcian
 Yarri naiz tristecian.

* * *

Ama erituric ohian çait guelditu
 Nere solas onez ecin dut consolatatu
 Ama ez khechatu huts egunez barcatu
 Behar naiz partitu
 Nic eguin fortunac çuc içanen tutçu
 Har ezazu descantsu.

* * *

Untcia pasayan bere mariñelekin
 ni engaiatua guateco harekin
 ezin despeitu familiarekin
 Aita eta amarekin
 eta aubridekin han bacen cer eguin
 oroc bihotcian miñ.

* * *

Adio aita eta ama aubride maitiac
 hauço adiskide ahaide guciac
 nere sor lekua bai eta mendiac
 Ustentut guciac
 nere tristeciac çuen kitatciac
 ez dirare chumiac.

* * *

Cantu hauc eman ditu urruñaco ttipic
 ez citaken mintça arrutinatic baicic
 ez tu escolarik ez principioric
 malur du hortaric
 ibili izan balitz escolan gasteric
 baçuken orotaric”.

*Urruñan eguiña abustuaren 13an 1853
 Martin Halsouet dit Ttipi*

Ez dizuet nik erranen bertsu horien aberastasunak edo ahuleziak zein diren: lan hori uzten diet ni baino jakintsunagoei. Harriet apezak ez zituzkeen hanbatekoak kausitu: badakigu 36 kantuetarik 8 bakarrik agertu zitzaizkela epai-mahainekoei. (Ikus Haritschelar...) Etzuen beraz Ttipik saria eraman. Sumindu ote zen horretaz, Etxahun bezala, nork daki? Apal edo umila zen menturaz, berak zioen bezala, zuenetik ari zen. "Ibili izan balitz eskolan bazuken orotarik."

ERANSKINAK

I

1853.eko bertsoak



Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak

Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	Urtun panyan ben marionelha
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	ni engualta guateu haren
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel bespuble familiartan
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel eta anarria
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel aubidien han bein ce eguar
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel

Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel aubidien han bein ce eguar
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel

Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel

Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel

Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel
Ala huntan / Iguarri denan, con con con stak	niel biletuan niel

II

Jaiotza

auj sord'hui le vingt germinal l'an troisième de la république
 française un et indivisible pardevant moi Jean Larramendy
 officier public et pour rédiger les actes de tenir à constater
 les naissances, mariages et les décès des Citoyens. Soit comparé
 en la maison commune d'Arriugne Etienne haffouet métayer
 d'Arriobaila martin haffouet cadet de l'Arriobaila amille de
 g'acianne Etcheverry demeurant à Siboure tous deux de la
 municipalité d'Arriugne département du bas pays pyrénéen lesquels
 m'ont déclaré que le nommer Jeannu Etcheverry métayer
 d'Arriobaila pour en septième mariage d'avec Etienne haffouet
 ont eue un enfant en son domicile d'Arriobaila d'un enfant
 mâle qui le mout présente et auquel un l'ai donné le nom de
 martin et le surnom haffouet, d'après cette déclaration que les
 Jurés Etienne et martin haffouet assistés de la Jurte g'acianne
 Etcheverry ont certifié conforme à la vérité et à la présentation
 qui m'a été faite de l'enfant dénommé J'ai rédigé en vertes et
 pourvis qui me sont délégués le présent acte lequel J'ai signé
 et martin haffouet n'ont pas signé non plus que ditte g'acianne
 Etcheverry pour me servir de vice

fait à la maison commune d'Arriugne le dit jour moi ange
 Denuy Larramendy officier public

